

txintxarri

Zabaleta, sanpedroen aurrekari

Zentzumen guztiak dantzan jarri dituzte auzoko jaietan; gogotik gozatu dute herritarrek / 8-9

TXINTXARRI

22.ena ospatzen ari dira

22. Antzerki eta Dantza Astea aurrera eramaten ari da Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola / 7

Xumela koruak han eta hemen kantatuko du datozen asteetan; lehenik, Boise hiriko euskal etxekoekin / 4

Aurrematrikula egiteko epea ireki du AEK euskaltegiak; azken eguna hilaren 28a izango da / 5

18 eta 20 urtez azpiko atletek dominak eta markak eskuratu dituzte Euskadiko lehia / 10

Ostadar SKTko Erregional Gorenak eta jubenil mailako taldeak, txanponaren bi aldeak / 11

Oroimena eta omenaldia, Beltzak RTk antolatutako Izar Beltzak torneoan / 13

Udaberri Festa "arrakastatsuko" sariak banatu ditu Aterpea merkatarien elkarteak / 3

2 MÓ 99€

erreflexuen aurkako betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 9/1/20



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   

Energia berriztagarrien arloko hitzarmena

Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute energia aurrezteko eta efizientzia energetikorako neurriei eta energia berriztagarrien gaineko prestakuntza sustatzeko

Txintxarri

Jose Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatuak eta Isidro Zaldua Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariak sinatu dute aipatu akordioa. Hitzordu hori baliatu du diputatuak Usurbilgo Lanbide Eskolara joateko, eta bertako zuzendari Isidro Zalduaren eskutik, zentroak energia berriztagarrien arloan egin duen azken azterlan gertutik ezagutzeko aukera izan du. Azterlan horrek Usurbil LHIIk jasangarritasun energetikoaren arloan duen "konpromisoa eta aurrerapen teknologikoa" islatzen ditu, eta berrikuntzaren arloan duen lidergoa nabarmentzen.

Hitzarmenaren helburua da bi erakundeen arteko "lankidetzaz sistema bat ezartzea" jasangarritasun energetikoarekin lotutako hainbat arlotan. Horren bitartez honako konpromiso hauek daude, besteak beste; energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko jarduerak batera sustatzea, Gipuzkoan energia berriztagarriak modu jasangarrian erabiltzea, eta beste eragile garrantzitsu batzuekin koordinatzea, hala nola erakunde publikoekin, unibertsitateekin, enprekin eta elkarteekin. Akordio horrek energiaren "ikuspegi soziala" bultzatzen du, lehentasunak klima eta pobrezia eta kalteberatasun energetikoa murriztea izan daitezke. Era berean, ezinbestekotzat jotzen du energia eraginkortasunerantz eta energia iturri berriztagarrien garapen

HITZARMENAREN HELBURUA DA BI ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA SISTEMA BAT EZARTZEA



Ezkerrean Isidro Zaldua eta eskuinean Jose Ignacio Asensio. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

eta hedapen handiago baterantz joatea, baita tokiko sorkuntza saretarantz ere. Horien helburua da herritarrei aipatutako arloetan ezagutza helaraztea, energia kontsumoa murrizten saiatzeko eta energia irtenbide jasangarri berriak bilatzeko. Horiek guztiak garatzeko, aldundiko Jasangarritasun departamentuak 50.000 euro jarriko ditu.

Era berean, hitzarmenaren jarraitutasuna eta dinamismoa bermatuko dituen urteko jarduketara plan bat egin eta onartuko dutela ere iragarri dute; hori, une bakoitzean eraginkorrenak diren neurrietara egokituta egongo da. Lankidetzaz hitzarmenaren arloan gero eta informazio eta ezagutza gehiago eskatzeari erantzutea, bai profesionalen aldetik, baita herritarren aldetik ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak nabarmendu du efizientzia eta energia aurrezteko eta energia berriztagarriak sustatzearekin batera, funtsezko konpromiso publikoak direla berotegi efektuko gasen emisioa murrizteko, berriztagarriak ez diren bali-

bideen kontsumoa gutxitzeko eta energia sistema iraunkor baterantz egiteko. Testuinguru horretan kokatzen da Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia, karbono gutxiko energia eredua sustatzen duena. Jasangarritasun Departamentuak energia gaien gaineko prestakuntza eta ezagutza eskaera handia identifikatu du. Premia horiei aurre egiteko, Usurbil LHII bezalako eragile espezializatu baten laguntza behar du; energiaren arloko berrikuntzan duen lidergoagatik eta Energia Berriztagarrien Zentro aurreratuagatik aitortua da. Gauzak horrela, akordioa "urrats garrantzitsua" da Gipuzkoan jasangarritasun energetikoa sustatzeko eta lurraldeari klima aldaketaren erronkei aurre egiteko beharrezko tresnak emateko.

"AKORDIOA URRATS GARRANTZITSUA DA JASANGARRITASUN ENERGETIKOA SUSTATZEKO"

Sare Herritarrak hamar urteko ibilbidea ospatuko du

Azken Ostirala ekintza aurrera eramane du Lasarte-Oriako Sarek. Ohi bezala Elizatze eta Okendo lotu ditu

Txintxarri

Maiatzaren hondarrean, Azken Ostirala ekintza aurrera eramane duen Lasarte-Oriako Sarek. Ohi bezala Elizatze eta Okendo plazak lotu zituen mobilizazioak, eta helmugan, Mari Jose Eizmendik hilabeteko irakurketa partekatatu zuen bertaratu zirenekin.

Etxera bidea errealitate bihurtzeko urratsak egiten ari badira ere, oraindik ere egiteko "asko" dutela gogoratu zuen Eizmendik, eta orain arteko bidetara jarraituz, ekainean ere aldarriak gizarteratzen jarraituko dute.

Lasterbia hamargarrenez aurrera eramango dute Abadiñon ekainaren 14an eta 15ean. Egun horretan hamarkada beteko da Sare Herritarrak San Telmo Museoa euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko herritar sarea aurkeztu zuela. Aurrera eramandako bi-



Partaideak, Okendo plazan. TXINTXARRI

dearen "balantzea egin" eta emandako pausoak "balioan jartzeko" ekitaldi burutuko dute ekainaren 23an San Telmo Museoa bertan. Ibilbidearen parte izan zirenei gonbitea luzatu zieten ekimen horietan parte hartzeko.



Jardunaldiaren kartela. IHITTEN ELKARTEA

Herriko bost emakume sortzaileen bizipenak ezagutzeko jardunaldia

Emakume sortzaileen I. jardunaldia egingo du Ihitten elkarteak hilaren 11n, 18:30ean, Antonio Mercero aretoan. Herriko bost emakumeren bizipenak ezagutzeko dituzte bertaratu direnek: Aintzane Usandizaga idazlea, Bea Egizabal aktorea, Nora Izagirre musikari eta diseinatzailea, Ainhoa Negueruela arkitektoa eta Karmele Salasendi diseinatzailea.



Auto klasikoetako bat. ISAAC FARRÉ

Herrian barrena ibili dira Talbot markako auto klasikoak

Ehun urte bete dira Talbot etxeko auto batek San Sebastian saria irabazi zuenetik, eta, urtemuga berezi hori oroitze aldera, marka britainiar-frantses horietako zenbait ibilgailu klasikok gure herria zeharkatu eta Lasarteko zirkuitua zena ezagutu dute. Geldialditxo bat egin dute Antonio Mercero gunean egitasmoa zertan den azaltzeko.



NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Uda usaina

Sinestuta nago urtaro bakoitzak bere esentzia duela. Udak zentzumenak bereganatzeko modu berezia du, urtaro honek bakarrik eragin dezakeen intentsitatearekin oroitzapenak eta sentsazioak piztuz.

Hiriaren bihotzean, asfalto beroak eguneko berotasuna gordetzen du, baina udako euriaren ondoren hartzen du bizia. Lurrin eta metalezko nahasketa bat, lurretik kiribilka altxatzen dena, airea freskotasun berritzaile batez bustiz. Usain horrek haurtzaroko oroitzapenak ekartzen dizkit gogora, eguzkipeko jolas amaigabeak, izozki zaporedun arratsalde bustiak...

Bitartean, terraiza itzaltsu batean, izotz-kafearen zaporea bero itogarriaren aurkako babesleku bihurtzen da. Lehen zurrupada kontraste konbinazio bat da: kafearen mikatzasun familiarra eta edalontzian tintinka ari diren izotz blokeen freskura karraskaria. Bizitza erritmo motelagoan dastatzeko aukera ematen duen su-etena, mundua udako arratsalde bateko baretasunarekin pasatzen ikusiz.

Itsasertzean harea, behatz artean irristaka. Naturak bakarrik eskain dezakeen leuntasun zakarrez. Kontaktatu honek lurrarekiko lotura sentsazioa ekartzen du hondar aleek istorio bana kontatuko balute legez.

Gauek ospakizun-xuxurlaz betetzen duen lore-usaina dakarte batzuetan, alkoholdun izerdiarena besteetan.

Kalean jendea, izozkiak, eguzkitako betaurrekoak eta artista ibiltariak. Eta kalean aglomerazioak; alokairu zerbitzu eta produktuen prezio igoerak, apartatu ezinak, bertakoek diren espazioak arrotz bilakatzea eta norbere herrian bizi nahi eta ezina. Batzuetan gu sentitzen gara turista etxean, dena ez baita horren polita.

Baina uda horrelakoa da: bizitza hutseko egoerara biltzen eta eramaten gaituzten sentsazioen bilduma. Euriaren osteko asfaltoaren usaina da, kafearen zaporea izotzarekin, hondarraren lastana behatzen artean, parranda usaina airean, iluntzearen koloreak eta txorien kantua gauean. Esperientzia horietako bakoitzak gelditerra, arnasa sakon hartzera eta unea udak bakarrik eskain dezakeen intentsitatearekin bizitzera gonbidatzen gaitu.



ISAAC FARRE

Herritarren boto eske

Europako Parlamenturako hauteskundeak egingo dituzte igande honetan, hilak 9. Beste boz batzuen atarian bezalaxe, zenbait alderdi politikoren herriko taldeak Andatza plazako azokara joan dira herritarrei informatu eta botoa eskatzera. PSE-EE, EH Bildu, EAJ eta Elkarrekin Podemos igo dira.

Ekimen "arrakastatsua" biribildu dute dendariak

Udaberriko Festako sariak banatu dituzte Aterpea merkatarien elkarteko nahiz udaleko ordezkariak, El Punto tabernan. Zortzi herritarrek 250na euro poltsikoratu dituzte erosketa txarteletan; hilaren 19a baino lehen erabili beharko dituzte

Txintxarri

Pozarren egin dute Udaberriko Festaren balorazioa antolatzaileek, Aterpea merkatarien elkarteko dendariak. Aipatu horren egitasmo horren helburuak bete dituztela berretsi dute, hau da, tokiko merkataritza ezagutaraztea eta Lasarte-Oriari bizia ematea. Azken horren adibide, maiatzaren 24an eta 25ean aurrera eramandako jarduera mordoa.

Udaberriko Festaren beste alorretako bat izan da maiatzaren 13tik 25era herriko 70 dena baino gehiagotan egindako kanpaina: horietan erosi zuten guztiak zozketa batean sartu ziren eta zortzi pertsonak 250



El Punto tabernan banatu zituzten sariak. TXINTXARRI

Irabazleak

Zortzi herritarrek 250na euro irabazi dituzte erosketa txarteletan. Hauek izan dira saridunak:

- Gema Marañon.
- Arantza Alkorta.
- Juanan Varela.
- Manolo Piguave.
- Garazi Alberdi.
- Pedro Benitez.
- Marila Sanchez.
- David Franco.

euroko erosketa txartel bana (25 euroko hamarna bonu) poltsikoratu dituzte. Hauek izan dira saridunak: Gema Marañon, Arantza Alkorta, Juanan Varela, Manolo Piguave, Garazi Alberdi, Pedro Benitez, Marila Sanchez eta David Franco. El Punto tabernan elkartu dira sari banaketa ekitaldia egiteko eta Aterpeko ordezkariak ez ezik udalekoak bertaratu dira, Agustin Valdivia alkatea eta Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandez. Gutun bana jaso du irabazle bakoitzak eta Aterpeko kide Arantza Aldairen azal-

penak entzun: hilaren 19a baino lehen erabili behar dituzte eta establezimendu bakoitzean ezingo dituzte 100 euro baino gehiago gastatu.

Aterpeko lehendakari Mabel Pedreirak eta ekitaldira joandako udal ordezkariak nabarmendu dute "arrakastatsua" izan dela Udaberriko Festa, herrian "sekulako giroa" sortu zuelako maiatz amaieran. "Bezeroek zorriondu egin gaituzte", gehitu du Pedreirak. Datozen aste eta hila beteetan tokiko merkataritza hauspotzeko jarduera gehiago egingo dituztela aurreratu dute.



Ttakun
Kultur Elkartea

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?



PATXI LARRAÑAGA HARATEGIA

30 EUROKO BONUA ZOZKATUKO DUGU!

Eman izena ekainaren 23a arte (barne)

harpidetza@ttakun.eus | 943-37 14 48 | 646 82 44 66 (whatsapp)

Udalaren Udako Txokoen izena ematea hastear

Hilaren 10ean irekiko da Udalaren Udako Txokoetan izena emateko epea eta 19ra arte izango dute interesdunek horretarako aukera. Bi bide izango dituzte horretarako; aurrez aurrekoa, kultur etxean, eta sarean, horretarako ahalbidetu duten web atari baten bidez

Txintxarri

Udako Txokoak aurkeztu ditu Lasarte-Oriako Udalak berrik; agerraldian egon dira horiek aurrera eramango dituen Servicios Globales Araba enpresako ordezkari Asier Velasco eta txokoetan koordinatzaile lanetan arituko den Danel Kerejeta; horiekin izan dira baita ere Agustín Valdivia alkatea eta Miel Muñoz Kultura teknikaria.

Velasco hartu du hitza, eta txokoen gaineko informazioa eman. Esan du bi txanda eskainiko dituztela; uztailaren 3tik 30era lehena, eta, abuztuaren 1etik 30era, bigarrena; hala nahi dutenek, bietan parte hartzeko aukera izango dute. Jakinarazi du horietan aritu ahal izateko izen emate epea datorren astelehenean, hilak 10, irekiko dela eta hilaren 19an amaituko. Bi bide izango dituzte interesdunek horretarako; lehena, kultur etxeko garai bateko kafetegira joanda (17:00etatik 20:00etarako ordutegian); bigarrena, berriz, sarean. Azken aukera horretarako (eta txokoen gaineko informazio osoa kontsultatzeko) honako web ataria erabil daiteke: www.udakotxokoaklasarte-oria.com. Inskripzioa sarean egiten dutenek, izen emate orria deskargatu, bete eta arduradunek



Udalaren Udako Txokoen aurkezpen agerraldiko irudia. TXINTXARRI

zehaztutako komunikazio bideen bidez bidali beharko dute.

Progamaioa eta prezioak

Udako Txokoak 09:00etatik edo 10:00etatik 13:00etarako ordutegia izango dute, eta aurrera eramango duten programazioaren xehetasunak eman ez dituen arren, aurrera eramango dituzten jarduerak guztiak lau multzotan sailkatu ditu: irteerak, eskulan eta tailerrak, jolasak, eta taldeek elkarrekin egiteko jolasak (pista jolasak, ginkanak, eta abar). Prezioak, berriz, hauek:

Haur Hezkuntzako haurren lau orduko matrikula (09:00etatik) 150,35 eurokoa da; hiru ordukoa (10:00etatik), aldiz, 111,90 eurokoa. Lehen Hezkuntzako kasuan, berriz, lau orduko matrikula egin nahi dutenek 167,40 euro ordaindu beharko dituzte, baina, kiroldegiko bazkide direnek, beharpen bat izango dute; horiek 150,35 euro ordaindu beharko dituzte. Hiru orduko matrikulen kasuan, berriz, prezio orokorra 129,05 eurokoa da, eta kiroldegiko bazkideentzat, aldiz, 111,90 eurokoa.



Xumelako kideak, Shrabani Aranzabe-Pita eta bere taldekideekin. XUMELA

Boise hiriko euskal etxeko koruarekin ariko da Xumela

Igandean (hilak 9) Alkizara joango dira herriko taldeko kideak, Naturaren Doinuak jaialdian parte hartzera

Txintxarri

Astelehenean elkartzen dira Xumelako kideak, ordu eta erdi inguruz entseatu eta euskaraz kantatu bitartean tarte atseginak igarotzeko. Ikasturtean zehar landutakoa ez da Oriarte Landaberri institutuko musika gelan geratzen, izan ere, tartean-tartean emanaldiak eta beste talde batzuekin elkartrukeak aurrera eramaten dituzte. Azken horren adibide izango da gaurkoa (hilak 7): Boise hiriko (Idaho, AEBak) euskal etxeko taldearekin egun-pasa egingo dute Getarian, Zaurutzen eta Pasaiako Albaolan; ondoren, herrira etorri eta 18:45 aldera saio bateratu bat emango dute Sagardotegi plazan, eta, gero, elkarrekin mokadu bat jango dute Ttakunenea elkartean.

Bi egun geroago Alkizara joango dira, Naturaren Doinuak jaialdian parte hartzera. Astelehenean entseatu zuten ekitaldi

horren zuzendari Shrabani Aranzabe-Pitarekin, Oriarte Landaberri. Josu Txapartegi Txapas zarauztarrak zuzentzen duen koruko kideek adierazi dutenez, "luxu bat" izan da musikari alkizarraren eta bere taldekideekin jardutea. 10:30ean hasiko da aipatu ekimen hori eta Xumelakoek ekitaldi nagusian parte hartuko dute, 17:30etik aurrera, beste hainbat eragilerekin batera: Porrotx pailazoa, Klaap dantza taldea, Aspanogi elkarte, musikariak, dantzariak...

Ikasturteko azken saioa hilaren 17an aurrera eramango dute Xumelako kideek, Oriarte Landaberri. Horren ostean aforri-merienda egingo dute giro ederrean entseguei agur esateko. Hilabetea amaitzeko, 29an, San Pedro Jaietan egin ohi duten kantu jira aurrera eramango du taldeak, Sagardotegi plazatik abiatuta, 11:00etan.

Sasoetako auzokideekin ospatu dute aitortza, giro onean

Dulce Tentacion gozoki dendak Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen Buruntzaldeko Bitxiak saria irabazi du

Txintxarri

Sasoetako Dulce Tentacion gozoki dendak Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak banatutako Buruntzaldeko Bitxiak saria jaso zuen maiatzaren 24an. Eman dioten babesa eskertze-

ko, festa bat aurrera eramane astebete geroago, Sasoeta auzoko Jaizkibel plazan. 17:00etan hasita, haurrek zerbait jolasetan aritu edo buruhandien inguruan korrika egiteko aukera izan zute. Sai-

toko lagunek, berriz, zunba erakustaldia egin zuten, taldean. Txokolate janak, musikak eta bakarrizketa batek osatu zuten lau orduko egitaraua.

Aipatu establezimendu horrek makina bat jardueretan parte hartzen du urtean zehar, Sasoetari eta herriari bizia emateko helburuz. Azkenaldian, adibidez, Aterpea elkartean Udaberriko Festan edota Erreginaren Kopako finalaren aurretik Realari animoak emateko jaialdian.



Auzotar ugari ibili ziren Dulce Tentacion denda inguruan. TXINTXARRI

Ikasturtea itxita, kurtso berria prestatzen

Udal Musika Eskolan dantza ikasten duten herritarrek erakustaldia egin dute kultur etxean, hilabeteotan ikasitako guztia erakusteko. Bestalde, ireki dute datorren ikasturterako aurrematrikula; hilaren 14a izango da izena emateko azken eguna

Txintxarri

Hilabetetan ikasitakoa islatzeko zenbait dantza prestatu zituzten Udal Musika Eskolako ikasleek, eta senide eta lagunaren aurrean erakutsi zuten beraien trebezia maiatzaren 31n. Parte hartuko zuten dantzari guztiak elkarrekin atera ziren eszenariora lehen piezan, eta ondoren, adinaren arabera taldeak txandaka bueltatu ziren, hiru dantza eskaintzeko. Ordubeteko saioak bi zati izan zituen, hamar minutuko etenarekin, eta merezitako txalo zaparradarekin eskertu zieten ahalegina ikus-entzuleek.

Gauza bera egingo dute hilaren 17, 18 eta 19an instrumentuekin aritu diren ikasleek: gitarra klasikoa nahiz elektrikoa, zeharkako flauta, pianoa, biolina... Egun horietako bakoitzean kontzertu bat emango dute kultur etxeko auditorioan, 19:00etatik aurrera. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.



Dantzari talde bat. TXINTXARRI

Aurrematrikula, 14a arte

Ikasturtea bukatu berrikan, datorrenean dantza ikasi nahi dutenentzat aurrematrikula epea ireki dute. Tramite hori egiteko azken eguna hilaren 14a izango da, ostirala. Matrikula, berriz,

hilaren 24tik uztailaren 9ra arte egingo dute eta ikasturte berria irailaren 30ean hasiko da. Prezioak hauek dira: 36 euro hileko herrian erroldatuentzat eta 61 euro hileko erroldatuta ez daudenentzat.

Esan bezala, irailaren 30ean hasiko da 2024-2025 kurtsoa eta ekainaren 19an bukatuko da. Hainbat maila dituzte aukeran herritarrek, 6 urtetatik hasi eta helduetaraino (kurtso honetan aritu ez denetakoren batek 12 urtetik gorako taldean sartu nahi badu, gaitasun proba bat gaindu beharko du). Adinaren arabera, entseatzeko egunak eta ordu-tegiak desberdinak izango dira: 6 urtekoak, astelehen eta asteazkenetan 17:30etik 18:15era; 7 urtekoak, egun berberetan 18:15etik 19:00etara; 8 urtekoak, astearte eta ostegunetan, 17:30etik 18:15era; 9 urtekoak, astearte eta ostegunetan, 18:15etik 19:00etara; eta 12 urtetik gorakoak, astelehen eta asteazkenetan, 19:15etik 20:45era.



TXINTXARRI

Sorgin Dantza entseatzeko

Sanpedroetako ekimen erroto eta kuttunenetako bat den Sorgin Dantza entseatzeko hasi dira herritarrek. Okendo plazan egingo dituzte datozen saioak (eguraldi txarra egitekotan, Oriarte Landaberrin edo Sasoeta LHn); hilaren 11n, 13an, 18an, 20an eta 25ean izango

dira. Bestalde, Ttakun Kultur Elkarteak ireki du Gure Patxintxiak sarietarako hautagaiak proposatzeko epea. Horretarako azken eguna hilaren 17a izango da. Informazio gehiago topatuko duzue www.txintxarri.eus atari digitaletan.

EDUKI BABESTUA



Hilaren 19an ate irekien jardunaldia egingo dute euskaltegian. TXINTXARRI

AEK-k herritarrek animatu ditu euskaltegia ezagutu eta aurrematrikula egitera

Hilaren 28a baino lehen datorren ikasturterako aurrematrikula egiten dutenek iazko matrikularen prezioa ordainduko dute, hala nahi izanez gero, hiru epetan. Gainera, taldeak eratzeko orduan lehentasuna izango dutela nabarmendu dute Munterri AEK euskaltegiko arduradunek.

Buru-belarri ari dira 2024-2025 ikasturtea prestatzen eta jakinarazi dute ohiko ikastaroak emango dituztela urritik aurrera: aurrez aurreko taldeak, autoikaskuntza, sareko ikastaroak eta jardun biko ereduak. Aurrematrikula egiteko bide hauek erabil ditzakete herritarrek: www.aek.eus webgunea, Munterri AEK euskaltegiaren egoitzara joan (Geltoki kalea, 17) edo 607 62 52 33 telefono zenbakia.

Ate irekiak

Aurrematrikulari buruzko informazio gehiago eta euskaltegiaren egoitza ezagutu nahi dutenek aukera paregabea izango dute horretarako hilaren 19ko ate irekien jardunaldian. 11:00etan eta 17:30ean izango dira saioak.



aek

euskara praktikoa

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2

· **AURREZ AURRE** eta **AUTOIKASKUNTZA** bidez.

· **MINTZA-TALDEAK:**

Astean 2 egunez.

Munterri AEK euskaltegia

Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria

• 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus • www.munterri.blogspot.com



Texaseko jokalariek poz-pez jaso zituzten euren domina eta sariak. TXINTXARRI



Sari banaketa baino lehen futbol edo futbolin partidak izan ziren. TXINTXARRI

Emakumezkoen I. Txapelketa

Texas Lasartearra Emakumezkoen I. Txapelketa jokatu da hilaren 8an, larunbatarekin Michelin kirol gunean. Taldea zuri-urdineko ordezkarietz gain, besteak beste, Euskalduna, Añorga edo Martuteneko taldeak izango dira lehian. Izan Inurriren aldeko diru bilketa egingo dute.

Elkarrekin, denboraldi amaiera ospatzen

Texas Lasartearra CFko taldeak eta senideak Sasoeta ikastetxean batu dira denboraldia amaitzeko. Goiz eta arratsalde ekimen ugari izan dituzte. Sari banaketan, jokalariez gain, entrenatzaileek eta gurasoek ere oroigarriak jaso dituzte

Txintxarri

Kirol denboraldiak amaituta, Texas Lasartearra taldeak jai giroan agur esan nahi izan zion. Sasoeta ikastetxean aurrera eramane zuten festa, bazkari, jolas, dantza eta sari banaketa eginda hilaren 1ean.

Bikotekako futbolen txapelketa jokatu zuten eta irabazleei saria eman ondoren, Angel Rosa presidentek hartu zuen hitza bertaratutakoei eskerrak emateko, bereziki, bere haurtzaroko

kluba berriro abian jartzen lagundu dietenei.

Hemezortzi taldeetako 214 jokalariei domina bana eman zieten eta jokalariei onenari, taldekide onenari eta progresio handiena izan duenari saria, taldez talde, baita eskolako atezainei ere.

Klubari agur esango dioten entrenatzaile batzuei oparia eta aipamen berezia egin zizkieten eta zenbait jokalariren gurasoek ere oroigarriak jaso zituzten.



Ostadar SKTko sarituen talde argazkia. TXINTXARRI

Festa ederrarekin, denboraldiari agur

Ostadar SKTko kirolariak Oriarte Landaberrin BHIko patioan bildu dira. Naroa Furundarenak Kirolari Onenaren Saria eta Naizen elkarteak Auzolan Saria jaso dute. Sail ezberdinetako arduradunek ere jokalariei jatorreni sariak banatu dizkiete

Txintxarri

Kirol egokitua, boleibola, saskibaloia, futbola, atletismoa, mendia, ipar martxa, zikloturismoa eta toka eta bolo jolasa. Ia mila kirolari federatu ditu aurtengo denboraldian Ostadarrek. Horietako asko elkartu ziren hilaren 1ean Oriarte Landaberrin lehian boladari agur esateko.

Ikastetxeko patioan pixkanaka hurbildu zirenek zenbait jolasetan aritzeko aukera izan zuten lehenik.

Sariak eta aipamen bereziak

Eguerdian sari banaketaren tarteak izan ziren. Lehen oroigarria Kirolari Onenarena izan zen eta

Naroa Furundarenak jaso zuen, pista estaliko Espainiako txapel-dunordea maila absolutuan. Klubaren baloreekin bat egiten duen erakunde bati eman ohi diote Auzolan Saria, eta aurtengoa Naizen elkartearentzat izan da. Besteak beste, Marijo Martinezek jaso zuen oroigarria eta eskerrak eman zizkion Ostadarri beraiantzat "hain garrantzitsua den lana egiteagatik, batetik, ikusgarritasuna, eta bestetik, justu kirol munduan behar genuen babesa sentitu dugulako hasieratik Ostadarrekin".

Mendi sailak Juan Mari Iraola eskalatzaileari aitortza egin zion. Besteak beste, azken hiru hamarkadetan hutsik gabe bisitatu du

Patagonia eta Cerro Torre, Karakorum edota Gavarni bezalako goiera mitikoak egin.

Ondoren, atal eta talde bakoitzeko jokalariei jatorreni garai-kurrak banatu zituzten.

Eta aipamen berezia egin zieten Joxe Pikabeari eta Endika Marrahiri, urte luzez futbol eta saskibaloian atalen koordinatzaile izan ondoren, ardura utziko baitute. Biek hunkituta jaso zituzten beren kideek egindako opariak eta bertan zeudenen txaloak.

Saritu guztien talde argakia egin ondoren, Beltzak Errugbi taldeko kideek prestatutako ha-maketakoaz gozatu zuten.



Joxe Pikabea eta Endika Marrahiri aipamen berezi egin zitzaizkien. TXINTXARRI

Antzezle eta dantzari talentudunak

Iritsi da Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideen ikasturteko garai berezienetakoa. 22. Antzerki eta Dantza Astea aurrera eramaten ari dira, eta desfile koloretsu batekin ekin diote aipatu ekimenari. Hilaren 3an, astelehenarekin, herrian barrena alaitasuna zabaltzen ibili dira, han eta hemen, Kukukako ikasle eta irakasleek kurtsoko garai berezienean.

Egunotan, ikasturtean zehar ikasitakoak erakusteko antzerki emanaldiak egiten ari dira Manuel Lekuona Kultur Etxean. Hilaren 4an, Sasoeta eta Landaberri ikastetxeetako LH 1,2 eta 3. mailako emanaldiak aurrera eraman zituzten, eta hurrengo egunean, hilaren 5ean, LH 3 eta 4. mailako txanda izan zen. LH 5. mailako antzezleek erakutsi dituzte euren lanak, ostegunean, hilak 6.

Aurtengo egitasmoari amaiera emateko, gaur eta bihar, hilak 7 eta 8, dantza ikasleak igoko dira eszenatokira.



Dantzan eta irri egiten igaro zuten desfile osoa Kukukako irakasle eta ikasleek. TXINTXARRI



Okendo plazan bukatu zuten desfilea, kalejira eginda. TXINTXARRI



Antzerki obra koloretsu bezain landuak oholtzaratu dituzte LH 1-2 eta 3. mailako gaztetxoek. TXINTXARRI



Erakustaldiaren amaieran, diploma bana jaso dute ikasleek, irakasleen eskutik. TXINTXARRI

Asteburu luzeaz gozatu dute

Teresa Sorgiñari, agur

Teresa Sorgiña pozik eta harro itzuli da etxera, bere auzo kuttuneko jaiak zer-nolakoak izan diren ikusi eta gero. Urtero bezala, zabaletarrek dantzan jarri dituzte festa gunera bertaratu diren guztien zentzumenak, nekatu arte dantzatu eta kantatu duten abestiaren estribilloari jarraiki: "Ikusi, entzun, usaindu, dastatu... Denok batera hau da Zabaleta!".

Galiziatik etorritako David Pena auzotarrak irakurri zuen jaietako pregoia, eta, besteak beste, hauxe adierazi zuen: "Auzo aberats eta anitza gara, auzo batean barruan mundu bat gara. Mundua Zabaleta bezala izatea nahiko nuke, guztion artean eraikia litzatekeelako, festa hauek bezalaxe. Auzotar askoren ilusio, konpromiso eta borondatearen emaitza dira jai hauek". Espiritu eta grina hori oinarri hartuta, adin tarte guztientzako jarduera ugari aurrera eraman dituzte, errotuagoak batzuk eta berriagoak besteak: Teresari ongietorria (Pepenea baserritik joan da aurten festa gunera), proba misto nagusia, bertsolarien emanaldia, haurrentzako jolas eta tailerrak, goxoraketak, buruhandiak, bazkari nahiz afari herrikoiak...eta abar luze bat.



Aldatu egin zuten Teresa Sorgiñaren ibilbidea (Pepenea baserritik jaitsi zen txosna gunera),



Txalaparta eta adar doinuekin egin zioten ongietorria auzoko zaindariari. TXINTXARRI



Emanaldi koloretsua egin zuen Jalgune elkarteak, konfeti eta guzti. TXINTXARRI



Sorgin Dantza herrikoa dantzatu zuten jaietako pregoia irakurri ostean. TXINTXARRI



Andoni Ollokiegi eta Auskalo taldea elkarrekin aritu ziren ostiral gauean. TXINTXARRI



baina, aurreko urteetan bezala, jendetza bildu zen Teresa Sorgiñaren inguruan. TXINTXARRI



Aurtengo proba mistoko parte hartzaileak, lanak amaitu berritan. TXINTXARRI



Aurtengo pala eta frontenis txapelketetako finalistak. TXINTXARRI



Martina Muñoz, Mari Jose Eraunzetamurgil eta Eulogio de la Serna, tortilla txapelketako antolatzaile eta epaimahaikideekin. TXINTXARRI



Elektropottottek girotu zuen larunbat arratsaldea. TXINTXARRI



Kukukako dantzariak emanaldi bikainak egin zituzten herriko txistularien taldearen laguntzarekin. TXINTXARRI

Ostadarreko gazteak podiumean izan dira

Lasarte-Oriako atletak 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan lehen postuetan izan dira. Ostadar SKTko kideek hiru domina jantzi eta Espainiako txapelketarako gutxieneko marka ere eskuratu dute. Donostiako proba libreetan ere denbora esanguratsuak izan dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak txapelketaz txapelketa dabilta. Oraingoan 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan izan dira herriko ordezkariak, Gasteizen. Ederki jardun dira proba ezberdinetan; 18 urtez azpiko mailan kolore banako domina eta Espainiako txapelketarako gutxieneko bat eskuratu dituzte.

Podiumeko maila gorenera igo da Ostadar SKTko Oinatz Almagro. Jauzi hirukoitzeko proban lortu zuen urrezko domina. Bigarren saiakeran 13,06 metro egin zituen eta ez bera, ezta aurkariak ere ez ziren gai izan marka hori gainditzeko.

Xabalina proban bigarren izan da talde urdin-beltzeko kide Aiala Ramos. Lehiaketa hasieratik lehen postuetan izan zen atleta gaztea eta laugarren saiakeran 26,60 m. egin ostean, lortu zuen zilarrezko domina.

Brontzezko domina, aldiz, talde kide Aitor Eizaguirrek jantzi



Almagro, podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

zuen pisu jaurtiketa proban. Eizaguirrek 10,65 m. egin zuen laugarren jaurtiketan.

Markak ontzen

Lasarte-Oriako atletismo taldeko hainbat kide zein Real Sociadako Naroa Elvira herritarra ere podiumeko hirugarren mai-

latik gertu izan ziren; June Garcia jauzi hirukoitzean, Naroa Elvira 200 m. lasterketan eta Iraia Alkorta 1.000 m. proban. Alkorta, gainera, bere marka ondu (12,27) eta Malagan lehiatuko den 18 urtez azpiko Espainiako txapelketarako gutxieneko eskuratu zuen.

Egun bat lehenago, Donostiako proba libreetan ere Ostadarreko kideek nabarmentzeko moduko emaitzak izan zituzten.

Naroa Furundarenak luzera jauziko marka 18 zentimetroan hobetu zuen, 6,18 m. Denboraldiko Espainiako sailkapenean 10. marka onena da Lasarte-Oriako jauzilariak egindakoa eta absolutu mailako Espainiako txapelketan proba horretan ere parte hartzeko aukera handiak ditu herritarrek.

Eider Redondok ere proba berean egin zuen marka, 5,53 m. Horri esker, 16 urtez azpiko Espainiako sailkapenean hirugarren da eta uztailako Espainiako txapelketa lehiatuzetik gertu da atleta gaztea.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKUMEZKOEN I. TXAPELKETA

Texas Lasartearra Emakumezkoen I. txapelketa jokatu dute. Hamar talde izango dira lehiaketa.

Larunbata. Michelin kirol gunea.

PILOTA

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Lasarte-Oriako pilotari gazteek San Pedro Jailetako 30. esku pilota txapelketako neurketak lehiatuko dituzte.

Larunbata eta igandea. Goiza. Loidibarren pilotalekuan.

FRONTENISA

TRINKETE TXAPELKETA

Fronteniseko Trinkete txapelketa jokatu dute.

Larunbata. Trinketean.

IGERIKETA

WORLD PARA SWIMMING SERIES

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire Limogeseko World Para Swimming World Series proban lehiatuko da.

Ostiraletik igandera. Limoges, Frantzia.

LASARTEKO SARIA

Buruntzaldea IKTK antolatuta, 'Lasarteko XXXIII. Saria. Pertsonen Saria' lehiatuko da.

Larunbata. 15:00. Maialen Chourraut kirol.

GIMNASTIKA

OPEN TORNEOA

LOKEko gimnastek Open torneoan parte hartuko dute.


Igandea. Gasteizen, Araban.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Herriko atleten absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Miniestadioa, Donostia.



AUTOMOBILISMOA

IBARDIN IGOERA

Aitor Manso gidariak Nafarroako Mendi Igoeren txapelketako Ibardin igoera proban parte hartuko du.

Larunbata. 13:30. Bera, Nafarroan.

ARRAUNA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Gipuzkoako zein Bizkaiko traineruek Euskadiko txapelketari aurre egingo diote.

Igandea. 11:00. Kontxako badia, Donostia.

DENBORALDI AMAIERA, FESTA

EGUZKI ARETO FUTBOLA

Eguzki Areto Futbol taldeak denboraldi amaierako jaialdia antolatu du.

Larunbata. 19:30. Loidibarren pilotalekuan.



OSTADAR SKT

Giroko porrak baditu sarituak

Ostadar SKTK antolatzen duen Giroko porrako sari banaketa egin zen maiatzaren 31ean, Larrañaga harategian. Zortekoak, kirol elkarte ordezkariek zein Larrañagatarrak bildu ziren bertan.

Sari nagusiei dagokionez, *Pakete-Quedec* (400 euro) eta *Flipaos del padel* (200 euro) txartelek eraman zituzten. Urdaiazpikoen zortedunak, aldiz, *Eros Poli Team*, *Andatza XXL*, *Patos*, *Irama*, *Maira* eta *Kaxkox* bileteak izan ziren. Larrañagatarren denda izan da puntu gehien lortu dituen establezimendua eta opari goxoa eskuratu zuten, Txartel Txokon bi afari.

Porrako hurrengo proba Tourra izango da. Florentzian (Italia) hasiko da lasterketa hilaren 29an, larunbatarekin. Aste horretan zehar bete ahalko dira boletoak, internet bidez, elkarte webgunean (www.ostadarskt.eus) edo ohiko tabernatan.



LOKE GIMNASTIKA

Kadete taldea, Euskadiko txapeldun

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) gimnastek kadete, master eta senior mailako Euskadiko txapelketa lehiatu zuten hilaren 1ean, Durangon (Bizkaia). Maila handiko lehiaketa izan zen eta Lasarte-Oriako taldeko ordezkarien artean, Kadete B taldeak lortu zuen posturik onena, Euskadiko txapeldun da. Bakarka,

lehen hamarren artean izan ziren Paula Martinez masterra (9^a) eta Mirian Prieto (10^a) seniorra bai sailkapen orokorrean, baita xingola zein uztaiarekin lanean. Maitane Sarmiento kadetea, aldiz, uztaila eta mazoekin jardun zen eta hamaseigarren postuan amaitu zuen lehia.

Jubenil mailako taldeak eskuratu du igoera

Ostadar SKTko Erregional Goreneko zein Jubenil mailako taldeek erronka handia izan dute igoerako azken kanporaketan. Jubenilek jaso dute lanaren fruitua; Urola garaitu eta Jubenilen Gorengo mailan jokatu du taldeak hurrengo denboraldian

Txintxarri

Azken neurketara arte ederki borrokatu dira Ostadar SKTko Jubenil I. Mailako zein Erregional Goreneko jokalariek. Joane-ko partidetan berdinketa eskuratu ostean, etorrikoan zuten bi taldeek igoera jokoan. 1-0 amaitu ziren bi norgehiagokak baina neurketa batean bakarrik zen Ostadar etxeko; jubenil mailakoan.

Neurketa borrokatua izan zen Ostadar eta Urolaren artekoa. Baloiaren jabetza batetik bestera igaro zen eta biek markagailua irekitzeko aukera garbiak izan zituzten.

Atsedendira husnako berdinketarekin joan ziren eta markagailuak horrela jarraituko zuela zirudien, 76. minutura arte. Momentu horretan, Jon Barrantesek gola egin eta etxeko taldeak neurketaren kontrola hartu zuen. Errenta handitzen saiatu arren, Aitor Igarrizek zuzendutako jokalariek ez zuten lortu. Hala ere, emaitza nahikoa izan zen eta



Jubenil taldeko jokalariek defentsa lanetan. IVAYLO ASENOV

taldea Jubenilen Gorengo Mailan izango da hurrengo denboraldian.

Giro ederra

Erregional Gorengo mailako lehia, aldiz, Oñatin izan zen. Talde urdin-beltzeko 300 bat lasarteoriarat bildu ziren Azkoagain zelaian taldea bultzatzeko eta giro ederra sortu zen.

Lehen ordu erdian Jon Iruretaren taldea nagusi izan zen.

Aloña Mendik urduri jokatu zuen eta Ostadarrek aukera garbiak izan zituen markagailuan aurre hartzeko.

Korner batean guztia aldatu zen, ordea; aurkariak gola egin eta berpiztu zen. Ostadarrek saiatu arren, ezin izan zuen neurketa berdindu eta Ohorezko mailako igoerako ametsa hurrengo urterako utzi beharko du taldeak.



Telleria (erdian), II. mailako gainerako irabazleekin. EUSKAL PENTATLOIA

Beñat Telleria II. mailako Euskal Pentatloiko txapeldun da

Euskal Pentatloia II. mailako gizonezkoen finalean nagusi izan da Lasarte-Oriako kirolaria; 12.04 egin du

Txintxarri

II. mailako Euskal Pentatloia finalea jokatu zen hilaren 2an Tolosako zezen plazan. Hiru maila ezberdinetan –gizonezko, emakumezko eta gazteen maila– izan ziren lehiakideak; aipatu lehen mailan, Beñat Telleria herritarra izan zen nagusi. Ez da herritarra proba horretako podiumera igotzen den lehen aldiz; 2023an, Julen Gabirondo urnietarrarekin batera Binakako Euskal Pentatloia irabazi zuen.

Parte hartzaileek bost lan egin zitoten aurre finalean –harri-jasotzea, giza proba, aizkora, txingak eta korrika– eta guztietan bere mailako azkarrena izan zen Telleria. Guztira 12 minutu eta 14 se-

gundo behar izan zituen; bigarren Ander Altuna izan zen, 14.09 eta hirugarren, Iker Goldarazena, 16.21.

Ezin Igeldo garaitu

Bestalde, maiatzaren 13an, *Harri herri* telebista saioko finala jokatu zen EITBn. Albizuri eta Igeldo taldeen arteko lehia izan zen; lehen taldeko kidea izan da Telleria eta bere aita Luis Mari prestatzaile lanetan izan da.

Bigarren denboraldi honetan aurrekoaren arantza kentzeko aukera izan zuen Telleriatarren taldeak, baina harri baldarrarekin Igeldok baino hiru altxaldi gutxiago lortu zituzten eta Igeldorentzat izan zen txapela.

Santin, bikain bakarka eta taldean Espainiako txapelketan

Ostadar Inklusioko Xuban Santin Espainiako boccia txapeldun berri da; taldean, aldiz, txapeldunorde

Txintxarri

Bocciako Espainiako txapelketa jokatu zen Sevillan (Andaluzia) hilaren 24tik 26ra. Ostadar Inklusioko taldeko Xuban Santin gazteak bakarka zein taldean parte hartu zuen eta bietan podiumean izan zen; Espainiako txapeldun titulua eskuratu zuen eta taldean zilarrezko domina kolporatu zuen.

Barkaka BC2 kategorian lehiatu zen urdin-beltza. Saillapen fasean hiru neurketari aurre egin zien B multzoan eta hirurak irabazi ostean, multzoko lehen



Santin, garaikurrarekin. OSTADAR INKLUSIOA

bezala egin zuen aurrera. Finalerdian, Esbonat taldeko Javier

Sanchez Perez 5-0 garaitu zuen Ostadar Inklusioko taldeko kideak. Finalean Daniel Cartagena Cascales CD Empleoaspe taldeko ordezkaria izan zuen aurrez aurre. Ederki borrokatu behar izan zuen Santinek titulua eskuratzeko; 4-6 irabazi zuen.

Urrezko domina janzteaz gain, Kluben arteko Espainiako Txapelketa Absolutua jokatzeko saillapen zuzena eman dio talde urdin-beltzeko kideari. Hitzordua hilaren 14an eta 15ean izango da, Malagako Antequera (Andaluzia) herrian.

Bestetik, BC1-BC2 taldeen txapelketan Haszten-Ostadar SKT talde konbinatuan parte hartu zuen. Laia Gonzalez eta Ainhoa Meñaka bizkaitarrekin batera beste lau talderi aurre egin zitoten eta podiumeko bigarren mailan amaitu zuten lehiaketa.

Goenaga, Espainiako txapeldun

Ostadar Inklusioko taldeko Ander Goenaga kidea Galiziako Nigran herrian lehiatutako Espainiako txapelketa parte hartu zuen hilaren 25-26an.

Oiartzungo kirolariak Prone 2 kategorian parte hartu zuen beste lau lehiakideren aurka. Bi txanda eta finala jokatu zituzten. Lehen saikeran ibilbide handiko Angel Luis Curielek lortu zuen puntuazio onena. Baina bigarrenaren eta finalean olatuak ederki hartuz, epaileen puntu kopuru handiena jaso eta lehen postuan amaitu zuen lehiaketa Goenagak.

Inklusioko saileko arduradunek aipatu dutenez, kirolariak "nazioarteko txapelketen zirkuituari ekin aurretik sasoi olean dagoela erakutsi du".



Goenaga, saria jasotzen. OSTADAR INKLUSIOA

Infantilek domina eta marka uzta, Udako Sarian

Buruntzaldea IKTko igerilari gazteak Udako Sarian lehiatu dira hilaren 1ean. Euren onena eman dute taldeko zazpi ordezkariak eta emaitza ederrak lortu dituzte: bost domina bakarka, bi erreleboetan eta Euskal Herriko zein Gipuzkoako txapelketetarako gutxienekoak

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko zein herriko igerilariak igerilekuko denboraldia amaitzen ari dira eta bi lehiaketa garrantzitsu izan zituzten hilaren 1ean eta 2an, Gipuzkoako Open Saria Donostiako Paco Yoldi igerilekuan eta Gipuzkoako Udako XIII. Saria Oñatiko kiroldegian. Guztiak bikain jardun ziren eta podium, domina eta marka berri ugari izan ziren bi probatan. Ezin izan dugu informazio guztia orrialde honetan bildu eta Open sariaren gainekoak hurrengo asteko zenbakian emango ditugu.

Txapelketa horretan egon ezin izan ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak Oñatiko sarian parte hartu zuten. Lan ederra egin zuten igerilari gazteek eta infantil mailan bakarka bost eta erreleboko bi domina eta gutxieneko marka berriak eskuratu zituzten.

Horien artean, Kimetz De La Cruzek 100 m. bizkar proban eta Nora Miguelezek 100 m. tximeleta proban eskuratutako markak na-



Gipuzkoako Udako Sarian parte hartu zuten igerilariak dominekin. BURUNTZALDEA IKT

barmentzen dira Euskal Herriko Udako txapelketa zein Gipuzkoako Udako txapelketarako gutxienekoak dira eta, hurrenez hurren.

Sariei dagokionez, Kimetz de La Cruzek 50 m. eta 100 m. bizkar probetan urrezko domina jantzi zuten. Amaier Iparragirre bigarren sailkatu zen 100 m. tximeleta proban eta Nora Miguelezek distantzia

horretan eta 200 m. lau estiloetan brontzezko postua lortu zuten.

Horiez gain, taldeko nesken laukoak bigarren izan ziren 4x50 m. libre proban eta hirugarren 4x50 m. lau estiloan.

Lasarteko saria

Hilaren 8an, aldiz, etxean egingo dute igeri Buruntzaldea IKTko

rriko tenis jokalaria gazteek ederki egin dute borroka eta horietako hiru bakarkako finalerara iritsi dira.

Urtarrilean hasi zen tenis denboraldia taldeko Gipuzkoako txapelketako lehiarekin. Martxoan, berriz, bakarkakoaren txanda izan zen.

Alebin mailan Naroa Perurena Gipuzkoako txapeldunordetza eskuratu du eta Mario Ferrero eta Siria Delgado kontsolazio txapelketako garaileak izan dira kadete eta infantil mailan, hurrenez hurren

Maiatzaren 18an Donostiako Mons kiroldegian egindako sari banaketan jaso zituzten garaiak.

LOKEko arduradun Mariasun Yurritak txapelketan parte hartu duten gazteak zoriondu nahi ditu egindako lehiaketarengatik.

mailako Gipuzkoako txapelketak lehiatu dira Donostian, Azkoitian zein Oñatin. LOKEko zein he-



Naroa Perurena eta Mario Ferrero, sariak jasotzen. LOKE TENISA

Lasarte-Oriako tenislari gazteak Gipuzkoako finaletan izan dira

Eskolarteko mailan Gipuzkoako txapelketako zein kontsolazio lehietan izan dira herritarrik

Txintxarri

Urtarriletik maiatzera bakarkako zein taldekako Eskolarteko

Zudaire, bikain Berlinen

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire taldekidea Berlinen Citi Para Swimming World Seriean lehiatu zen maiatzaren 30etik ekainaren 2ra. Hiru proba egin zituen igerilariak –800 m. eta 400 m. libre eta 200 m. bular multidisability– eta emaitza ederrak lortu ditu; bi domina jantzi ditu eta Espainiako errekor berri bat ere ezarri du.

Azken proban lortu zuen Zudairek emaitzarik onena; finalean 03.25,64 egin eta podiumeko gorenera igo zen. 800 m. librea proban, aldiz, bigarren izan zen igerilaria, 10.35,87. Estilo libreko 400 metroko lehian, kanporaketa gainditu (05.10,68) eta B finalerako sailkatu zen Zubietako igerilaria, baina ez zuen horretan igeri egin.

Joko Paralimpiarrak prestatzeko bidean, Limogeseko World Para Swimming World Series proban ere izango da kirolari gaztea hilaren 7tik 10era.



Zudaire, urrezko dominarekin. INCLUSWIM

kide guztiek. Lasarteko XXXIII. Saria. Pertsonen Saria lehiatuko da arratsaldeko 15:00etatik aurrera Maialen Chourraut kiroldegian.

Igeriketa taldeko gazteez gain, Hernani, Igartza, Atletico San Sebastian, Igerikatzea, Gaude, Taosa, Amaya eta Ordiziako ordezkariak izango dira lehian.

Txapelketak berezitasun bat du igerilari guztiek generoa, adina edo desgaitasunak eta gaitasunak kontutan hartu gabe egingo dute igeri eta bakoitzaren markak izango dira kontuan sailkapena egiterakoan. Hau da,

puntuaziorako norik bere erreferentziazko taula izango du, munduko errekorren arabera. Amaieran guztiek Australiar probetaz gozatzeko aukera izango dute.

Ur irekiak

Ur irekien denboraldia ere hasi da eta hilaren 1ean, Gornizeko itsas zeharkaldian 400 igerilari batu ziren. Kairoscore taldeko Jurgi Sukunzak 1.500 metroko lehian igeri egin zuen eta sailkapen orokorreko podiumeko bigarren mailara igo zen; juniorretan lehena izan zen.

Lasarte-Oriako Mendi lasterketako izen ematea ireki du LOTMEK

Irailaren 29an lehiatuko da bigarrenez proba. Buruntza mendia igoko dute parte hartzaileek

Txintxarri

Lasarte-Oria Mendi Elkartek (LOTME) irailaren 29an bigarrenez Lasarte-Oriako Mendi lasterketa antolatuko du.

Buruntza mendira igotzen da proba. Ibilbideak 14,5 kilometroko luzera eta 750 metroko desnibel positiboa du. Lehenengo 8 kilometroetan desnibel positiboaren zatirik handiena metatzen da, eta, gero, behera egin behar dute lehiakideek. Horregatik, antolatzaileek azaldu dutenez, "nahiz eta lasterketa laburra izan, ziur gaude

gogorra dela eta beroak oso latza egin dezakeela".

Hilaren lehenean ireki zen inskribatzeko epea LOTMEko webgunean zein kronoak orrialdean. Irailaren 16ra arte egongo da aukera izena emateko. Probaren informazio gehiago elkartearen webgunean aurki daitezke.

Familia ibilaldia

Lasterketaz gain, hilaren 23an Familia ibilaldia ere antolatu duela gogorarazten du elkarteak. Inskribazioa webgunean bertan egin daitezke hilaren 20ra arte.



Beltzak errugbi taldeko kide ohiak eta Beltzak Lasarteorian ZRT taldea. TXINTXARRI

Oroimenezkotik, urteurreneko omenaldira

Beltzak Errugbi taldeak 40 urte bete ditu. Kirola eta jaia uztartu dituzte urteurrena ospatzeko eta Izar Beltzak oroimenezkoan, Aitor Uranga eta *Gotxo* Perez gogoan izateaz gain, taldea sortu eta bultzatu zuten kideek ere omenaldia jaso dute

Txintxarri

40 urte ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula eta Beltzak Errugbi taldeak urteurren berezia ospatzeko ekimen ezberdinak antolatu zituen hilaren 1ean, Michelin kirol gunean.

Errugbi eskolako txikiek eta euren senideek eman zioten hasiera jardunaldiari. Euripean, joko ezberdinak egin eta neurketa berezia jokatu zuten; haurrak helduen aurka. Indarrak berreskuratzeko hirugarren denbora ere izan zuten.

Arratsaldean Izar Beltzak oroimenezkoaren txanda izan zen. Atletico San Sebastian, Huescako

Quebrantahuesos eta Beltzak Lasarteorian ZRT taldeek hiruko torneoak jokatu zuten. Neurketa politak ikusi ahal izan ziren eta etxeko taldeak eraman zuen sari nagusia.

Parte hartu zuten taldeei oroigarriak banatzeaz gain, Beltzakeko Julen Cubreirori torneooko jokalarari onena saria eman zioten eta errugbia utziko duen Kepa Ibarguren ere izan zuen oparitxoa.

Omenaldia

Kirolaz gain, oroimen eta omenaldirako tartea ere izan zen torneoak amaitzean. Txalaparta,

musugitarra eta kutxa doinuen bitartez, Beltzak taldeko sortzaile, jokalarari eta zuzendari izandako Aitor Urangaren eta taldeko lehen kapitain eta zuzendaritzako kide zen Jorge Perez *Gotxo* izan zituzten gogoan eta euren senitartekoen lore sorta bana eman zizkieten.

Ezusteko modura Beltzak Errugbi Taldea osatu zuten kirolariek omenaldi txikia ere egin zitzaizen. Erketz EDTko kideek agurra eta zinta dantza eskaini eta hainbat oroigarri banatu zituzten.

Eta amaitzean guztiek hirugarren denboraz gozatu ahal izan zuten.



Errugbi eskolako haurrek zein senideek ederki gozatu zuten goizean. TXINTXARRI

Aitor Uranga zein Jorge Perez *Gotxo*ren senitartekoen lore sorta jaso zuten. TXINTXARRI

Saleta, Espainiako selekzioarekin

Beltzak RTko harrobiko Alex Saleta errugbi hamabosteko Espainiako selekzioarekin ari da lanean. Lehoiek uztailan Ozeaniara egingo duten bidaia prestatzeko hiru asteko egonaldia egingo dute Valladoliden; Samoa eta Tongaren aurka izango dituzte neurketak. Hurrengo denboraldia erabakiorra izango da 2027ko Australiako Munduko txapelketako sailkapena eskuratzeko.

Hirugarren lerroko lasarteoriatarra, gainera, albiste da Ordizia Rugby taldea utzi duelako. Ordiziako taldeak eskerrak eman dizkio



TXINTXARRI

Gipuzkoako bandera

Gipuzkoako traineruak Hondarribian bildu ziren hilaren 2an lurraldeko bandera jokatzeko eta herritarrak kide dituen Donostia Arraun Laguna nagusi izan zen. Bere mailako hirugarren txandan parte hartu zuen Lugañenek Tolosaldea, Donostiarra eta Oriorekin batera eta 11.16,08 eginez, banderan gailendu zen. Intza Fernandez kide duen Hondarribiak, aldiz, bigarren txandan parte hartu zuen eta seigarren izan zen, 11.37,46.



ARGAZKIJABEAXXXXXX

Sasoeta-Zumaburuko Eskola Kirola izen ematea martxan da

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Eskola Kirola ekimeneko izen ematea ireki da eta ekainaren 16ra arte inskripzioa egiteko aukera izango dute gurasoek.

Saioak urriaren 7an hasiko dira iragarri dute egitasmoko antolatzailek. LH1 eta LH2 mailako ikasleek Jolas Hezi programa garatuko dute. LH3tik eta LH6ra, berriz, kirol ezberdinak landuko dituzte, hala nola, saskibaloia, ige-

riketa, kirol egokitua, pilota, errugbi, eskubaloia edo judo.

Inskripzioa ikastetxeko guraso elkarteak familiei bidaliko dien esteka baten bidez egingo da. Formularioko loturarekin batera, Eskola Kirolako arautegia eta irizpideak jasotzen dituen dokumentua txertatuko da.

Ttakun Kultur Elkarteak kudeatuko ditu izen emateak eta prozesuko edozein zalantzarik izanez gero, 695 78 53 94 telefono zenbakira deitu edo eskolakirola@ttakun.eus helbidera mezua idatzi dezaketek gurasoek.

ZORION AGURRAK



Iker
Nahi dituzun urteak bete, baina nik ez dut gauza bera egingo, gaztea naiz eta.



Laura
Printzesa, alaitasun eta jariatasunez bete zaude. Ez galdu inoiz inguruko guztiok argitzen gaituen eta bereizgarria duzun irribarrea. Zorionak!! Asko maite zaitugu Pedro, aita eta ama.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitarteak

Internet


· txintxarri.eus/
zorionagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/
Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 7	LASA
LARUNBATA, 8	GIL
IGANDEA, 9	GIL
ASTELEHENA, 10	URBISTONDO
ASTEARTEA, 11	ACHA-ORBEA
ASTEAZKENA, 12	GIL
OSTEGUNA, 13	GANDARIAS-URIBE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Ostadar SKT, izen ematea

Kirol egokitua eta inklusiboa, saskibaloia, boleibola, atletismo, errugbia edo futbola, horietako kirolen bat egin nahi duten haur eta gazteek ekainaren 1etik aurrera izena eman dezakete kirol elkarteko webgunean (www.ostadarskt.eus). Inskribatzeko azken eguna ekainaren 16a da

Talde urdin-beltzeko arduradunek jakitera eman dutenez, taldeak osatzen direnean entrenatzailea edo koordinatzailea jarriko da harremanetan interesdunarekin, zein taldetan jokatu duen jakinarazteko.

Horrez gain, Ostadarreko bulegoan (Geltoki kalea, 4), astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara argituko dira zalantza guztiak.

San Juan, sokadantza entseguak

San Juan bezperako (ekainak 23, igandea) sokadantza prestatzeko entsegu irekiak egingo ditu Erketz EDTk. Asteazkenetan Landaberri ikastolako Garaikoetxea eraikinean, 20:00etan bilduko dira ekitaldiko dantzak prestatzera. Parte hartu nahi duen edonor bertara daiteke entseatzera.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago. Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEJA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA
33 urteko gizona lan bila dabil. Taberna, sukaldetan, garbiketarako lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozein lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.
46 urteko emakumea garbiketarako lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informazio ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informazio. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdaleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez eta Ander Hazas.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Carmen Atalaia Revillak *Gracias* liburua aurkeztuko du.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 17:30ean.

LASARTE-ORIA Solasaldia

Transmaribollo kolektiboak solasaldia antolatu du irakurle txokoarekin batera. Lizar Begoña idazlea gonbidatuko dute, bere *Mundu zitalaren kontra* lanaren gainean solasteko.
Mercero gunea, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Musika

Boise (Idaho, AEBak) hiriko euskal etxeko koruari harrera egin eta emanaldi bateratua egingo du beraiekin Xumela koruak. Ondoren, pintxo-afaria egingo dute Ttakunenea elkartearen.
Sagardotegi plaza, 18:45ean.

LASARTE-ORIA Emanaldiak

Antzerki emanaldiak eta Euskal Dantza Sorkuntza erakustaldiak egingo dituzte Kukukako ikasleek, 22. Antzerki eta Dantza Astearen barruan: batetik, *Gure garaia* (DBH 1-2) antzezlan; bestetik, LH4-6, DBH 1-3, DBH2 eta DBH3-4 mailetakoko taldeen dantza emanaldiak.
Kulutr etxeko auditorioa.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Erromeria

Semblante Andaluz elkarteak 29. Rocioko erromeria aurrera eramango du eta hau da egun horretarako iragarri duen egitaraua:
12:00etan, tabernaren irekiera. Ordu berean, LOZETeko buruhandi eta erraldoien kalejira, eta haurrentzako animazioa.

14:00etan, herri dantza.

14:30ean, herri bazkaria.

16:30ean, Errenteriako Concha Rociera koruaren emanaldia.

17:00etan, Semblante Andaluzeko Duende, eta Azabache dantza taldeen emanaldia.

17:30ean, Fit Gypsy Dance master clas-a, Lourdes Motiñoren eskutik.



LASARTE-ORIA Erromeria

Semblante Andaluz elkarteak Rocioko ama birjinaren omenezko jai aurrera eramango du. Jardueraz betetako bi egunetako (hilaren 8 eta 9a) egitaraua iragarri dute. Ondoko agendan kontsulta daitezke horiek guztiak.
Hilaren 8 eta 9an, Atsobakar parkea.

18:00etan, Amaia Gonzalez Caballero danta eskolako funky erakustaldia.

18:30ean, Flamenko Runba master clas-a, Amaia Gonzalez Caballeroren eskutik.

19:00etan, herri dantza.
Atsobakar parkea, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Dantza

Euskal Dantza nahiz Euskal Dantza Sorkuntza erakustaldiak egingo dituzte Kukukako ikasleek (bost eta sei talde ariko dira, hurrenez hurren), 22. Antzerki eta Dantza Astearen barruan.
Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

IGANDEA 9

LASARTE-ORIA Erromeria

Semblante Andaluz elkarteak 29. Rocioko erromeria aurrera eramango du eta hau da egun horretarako iragarri duen egitaraua:

11:30ean, meza rozieroa

Arantzazuko Ama parrokiaren, Semblante Rociero koruak abestuta.

12:00etan, tabernaren irekiera.

12:30ean, Ama Birjinaren erromeria, Arantzazuko Ama parrokiatik, Atsobakar parkera.

14:00etan, ohorezko ardoa agintari eta gonbidatuentzat.

14:30ean, herri bazkaria.

16:30ean, Errenteriako Aljafare koruaren emanaldia.

17:00etan, dantza erakustaldiak. Honako taldeek parte hartuko dute: Errenteriako Concha Rociera, Irungo Embrujio andaluz, Hernaniko Jakaranda eta Semblante Andaluz elkarteak Al alba, Azahar eta Duende.

18:30ean, herri dantza.

20:00etan, Semblante Rociero koruaren emanaldia eta Ama Birjinari agurra.
Atsobakar parkea, 12:00etatik aurrera.

ASTELEHENA 10

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Idoia Torregarai Martijak *Mikroipuinak* liburua aurkeztuko du.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 18:30ean.

ASTEARTEA 11

LASARTE-ORIA Jardunaldia

Emakume sortzaileak I. jardunaldia iragarri du Ithiten elkarteak. Hori aurrera eramateko bost emakume sortzaile gonbidatu ditu: Karmele Salsamendi eta Nora Izagirre diseinatzaileak, Aintzane Usandizaga idazlea, Ainhoa

Negeruela arkitektoa eta Bea Egizabal aktorea.
Mercero gunea, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Solasaldia

Landaberi Guraso Elkarrekin solasaldia antolatu du. Ongizate digitalean aditu eta *Nerabeen garrasia* liburuaren egile Telmo Lazkano gonbidatu dute.
Oriarte-Landaberi, 18:00etan.

ASTEAZKENA 12

LASARTE-ORIA Entsegua

Ekainaren 19ra arte, Erketz dantza taldeak asteazkeneko egingo ditu San Joan bezperako (ekainak 23) sokadantza prestatzeko saioak. Edonor joan daiteke.
Garaikoetxea-Landaberi ikastetxea, 20:00etan.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi eskolako ikasleek ikasturtean zehar sortu dituzten lanak ikusgai jarriko dituzte. Hilaren 21era arte, ostirala, izango da horiek ikustera joateko aukera.
Mercero gunea, 18:00etatik 20:30era.

LASARTE-ORIA Bertsopteoia

Transmaribollo kolektiboak bertsopteoia transfeminista iragarri du. Ttakunenea elkartetik abiatuko da ekimena, eta elkarteak ibiliko dira.
Ttakuneneatik, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Emanaldia

Alboka abesbatzak kontzertua emango du Brigitarren komentuan.
Brigitarren komentua, 19:30ean.



LASARTE-ORIA Jarduerak

Solasaldi literario, bertsopteoia eta manifestazio bana aurrera eramango ditu Lasarte-Oriako Transmaribollo kolektiboak.
Hilaren 7an, 14an eta 28an, hurrenez hurren. Ondoko zerrendan daude horiek kontsultagai.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Erketz Euskal Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du.
Okendo plaza, 19:00etan.

ASTELEHENA 17

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek ikasturtean zehar ikastitakoa erakutsiko dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek ikasturtean zehar ikastitakoa erakutsiko dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 19

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek ikasturtean zehar ikastitakoa erakutsiko dizkiete bertaratzen diren ikus-entzuleei.
Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Entsegua

Ekainaren 19ra arte, Erketz dantza taldeak asteazkeneko egingo ditu San Joan bezperako (ekainak 23) sokadantza prestatzeko saioak. Edonor joan daitekeela ohartarazi dute antolatzaileek.
Garaikoetxea-Landaberi, 20:00etan.

Patxintxi sariak 2024



- Zuretzat, nor da pertsonarik goxo eta maitagarriena?

.....

- Nola jarri gaitzke berarekin harremanetan?

.....

Zure izena eta kontaktua:.....

itsatsi zure
hautagaiaren
argazkia

Zuzenean
igotzeko:



Patxintxi sariak 2024

65 urtetik gorako
pertsona maitagarri eta goxoenak

**Bidali zure hautagaiak
ekainaren 16ra arte**

Ttakuneko bulegoan,
kultura@ttakun.eus-era, 695 78 53 89,
Ttakuneko sare sozialetara
labur.eus/patxintxisariak2024

Sari banaketa San Pedroetako txupinean!

EGUNAK
EKAINAK 4, 6, 11, 13, 18, 20 eta 25

ORDUA
20:00ETATIK 21:00ETARA

LEKUA
Okendo plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarteko estalkian edo Sasoeta ikastetxeko estalkian.

SORGIN DANTZA ENTSEGUAK

**LASARTE-ORIA
SAN PEDRO JAIAK**

txintxarri

San Pedro Jaietako zenbaki bereziak ekainaren 21ean eta uztailaren 5ean

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66

Deskontu
bereziak
herrikoentzat!

UDALEKUAK eta UDAKO TXOKOAK

Gurasoekin bilerak

Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan

Ekainak 11, asteartea
LH3-LH6: Elebitan 17:00etan.
Atxondoko txanda: 17:40ean.
Azkarateko txanda: 18:20ean.
Abenturaz blai! Araba: 19:00etan.
Kosta ala kosta (Bizkaia-Gipuzkoa): 19:30ean.

Ekainak 12, asteazkena
HH3-HH4: Gazteleraz 17:00etan.
HH3-HH4: Euskaraz 17:40ean.
HH5-LH2: Euskaraz 18:20ean.
Astigarragako irteera 19:00etan.
HH5-LH2: Gazteleraz 19:30ean.